

elitsi!

LAUKIZ eta MARURI-JATABEKO EUSKARA ZERBITZUA

2011ko uztaila • 32 zenbakia



“Ekaina eder, uda alaber”

“EMAN GILTZA ¡HÁBLALE, ESCÚCHALE!”

EUSKARA FAMILIA BIDEZ TRANSMITITZEKO KANPAINA



0 eta 5 urte bitarteko seme-alabak dituzten Laukiz eta Maruri-Jatabeko gurasoek jaso dute egun hauetan “**Eman giltza-¡Háblale escúchale!**” leloa daraman informazioa. Kanpaina honen helburua, euskara belaunaldiz belaunaldi transmititzeko duen garrantzia nabarmentzea da. Alkarbide bilguneak koordinatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiak babestuta, egitasmo hau martxan jarri da 37 udalerritan eta 3 mankomunitatetan.

Aurtengo kanpaina hau apur bat ezberdina izan da aurreko urteetan burutu denarekin konparatuta, zeren eta ohikoa den diptikoaz gain, web gune bat jarri da martxan non gurasoentzat transmisioa bermatzeko giltza izango diren aholkuak, tresnak eta baliabideak batzen diren. Gainera hainbat gurasoren testigantzak ere sartu dira beste guraso batzuek izan ditzaketen kezka, beldur edota bestelako zalantzak argitze eta uxatze aldera.

Honetaz gain, eta opari moduan, 0-1 urte bitartekoek adurzapia jaso dute, 1-5 urte bitartekoek aldiz, askari poltsa.

Euskara, guztion esku, guztion altxorra. Jagon eta erabil daigun!

EUSKARA LIBURUTEGIRA

Duela urte batzuk, Laukiz eta Maruri-Jatabeko Euskara zerbitzuok herri bi hauetako udal liburutegiekin batera, abian jarri genuen “Euskara liburutegira” programa. Helburu nagusia umeak eta familiak liburutegira hurbitzeaz gain (topaleku bihurtzea alegia) irakurzaletasuna piztea zen. Hainbat ekintza burutu dira hilez-hile batzuk arrakastatsuagoak besteak baino, baina denak interesgarriak zalantza barik. Ekintza hauen inguruan guztion iritzia jakin nahian, ekaineko tailerlean inkesta bat egin genuen hurrengo ikasturtean gehien gustatu zaizkizuen ekintzak programatzeko.

Baina bitartean ez ahaztu liburutegiak zabalik jarraitzen duela... Udan ere irakurri euskaraz!



SAN JOANEKO POMADA



Pasa den ekainaren 20an eta 22an, Maruri-Jataben eta 20an eta 21ean Laukizen hainbat lagunek "San joaneko pomada" miragarria nola egiten den ikasteko aukera izan dute. Doaneko tailer hau, Bizilore eta Bagabiltza elkarteak, BBKko dirulaguntza eta Laukiz eta Maruri-Jatabeko Udalei esker antolatu da. Baina, zer da edo zertarako erabiltzen da pomada hau?

"Aloe bera" famatua izan baino lehen, aintzineko amamek bazeukaten pomada miragarri honen berri.

Badirudi zauriak sendatzeko, kolpeen mina arintzeko eta berehala sendatzeko eta hainbatetarako erabil daitekeela. Astelehenean eta eguraldi ederra aprobetxatuz, landareen bila atera ziren Jataben eta Laukizen zehar. Biziloreko kideek adierazi zuten, oso garrantzitsua da loreak hartzerakoan errepidetatik urruntzea apur bat zeren eta ibilgailuen ke guztiak loreak gordetzen dituzte. Hurrengo egunean Laukizen eta asteazkenean Jataben pomada egiteari ekin zioten. Hartutako loreak, argizaria eta olioaz nahastuta lortzen da pomada. Denak oso pozik geratu dira eta pomada egiten ikasteaz gain, landareei buruz asko ikasi dute. Espero dugu pomada hori probatzeko aukera ez izatea baina behar izanez gero... ikusiko dugu benetako poterea!!



Nola babestu eguzkiaz?

Pasa den ekainaren 22an, umeei zita bat zuten Maruri-Jataben eguzkiaz nola babestu ikasteko asmoz. Maruri-Jatabeko Udalak, herriko botikinarekin batera sustatutako ekintza honek badu oso helburu garrantzitsua: eguzkiaz gozatzea arrisku barik. Eguraldiak lagundu ez zuenez, botikinaren lehenengo solairuan egin behar izan zen. Arratsaldeko 5etan, Estibaliz Colindres, "Avene" laborategietako farmazialaria prest zegoen umeei dena azaltzeko. Uda heltzen denean eta eguzkitan jartzen garenean, badaude kontu batzuk bai nagusiek bai txikiek jakin beharrekoak. Eguzki izpiak oso onuragarriak dira baina aldi berean oso kaletgarriak ere izan daitezke. Eguzkia behar-beharrezkoa dugu landareak, animaliak zein gizakiak bizitzeko baina erradiazioa oso kaltegarria izan daiteke gure azalerako. Horrexegatik oso garrantzitsua da gure azal mota ezagutzea. Eguzkiaren aurrean, denok ez gara berdinak: ilegorriak, errubioak, beltzaranak... fototipo ezberdinak daude, beraz, bakoitzak erabili behar duen babes krema ezberdina da, eguzkiaz ondo babesteko eta bere eragin txarrak ez jazateko. Hori dela eta oso garrantzitsua da txiki-txikitatik hau guztia ikastea eguzkiari ahalik eta probetxu gehien ateratzeko, kaltegarria izan barik. Amaitzeko, opariak banatu ziren bertatutakoen artean: badminton kit bat, ipuintxoak eta krema txiki batzuk.



KARTEL LEHIAKETA

Aurten ere, heldu da Maruri-Jatabeko jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Beti bezala, bi kategoria izan dugu: 14 urte baino gehiagokoentzat eta bestea txikientzako. Pasa den ekainaren 27an, Osoko Bilkura bildu eta honako erabakia hartu zuen:

Nagusiak:

"Tunturutún, tantaratán, Maruriko San Lorentzo jaietan ezin dut egin lan" Alfonso Garcia Laraudogoitia

Txikiak:

"Piñata" Ane eta Sare Abad Atxirika

Sari banaketa San Lorentzo jaietan zehar egingo da.

Seguru asko, kartelak ikusgai egongo dira Kultur Etxean San Lorentzo jaietan zehar.



Shakirarekin dantzatzen

Nire izena Maider da, Laukizkoa naiz eta 16 urte ditut . Shakirarekin dantzatzen izan dudana esperientzia kontatuko dizuet.

Niri betidanik dantzatzea asko gustatu zait, azken urte hauetan leku askotan dantza egin dut, adibidez: diskoteketan, eskolatan, Barakaldo Antzokian, Euskalduna Jauregian...

Egun baten, nire eskolako andereño batek Shakirarekin eszenatokian waka-waka abestia dantzatzeko casting bat egongo zela esan zidan. Bi aldiz pentsatu gabe, Maiatzaren 31n Ane ahizparekin eta Eider lagunarekin, castingnera joan nintzen. Han tentsioa eta urduritasuna nabaritzen zen, baina poliki poliki dantzatzen lasaitzen joan ginen. Epaimahaikoek FAMAko irakasle eta ikasleak ziren. Ordu erdi egon ginen dantzatzen gelditu gabe. Lehenengo, finalistak aukeratu zituzten, finalista bakoitzak Shakiraren kontzerturako bi sarrera vip irabazi zituen. Nire ahizpak, nire lagunak eta nik sarrerak irabazi genituen. Momentu horretan oso pozik ipini nintzen, sarrerak irabazi nituelako eta Shakirarekin dantzatzeko hurbilago nengoelako. Finalistak dantzatzen jarraitu behar genuen, nik ahal nuen hoberen dantzatu nuen.

Azkenik Shakirarekin dantzatuko zituzten 10 pertsona izendatu zituzten. Nire laguna eta biok izendatuak izan ginen, ezin genuen sinistu, saltoka eta oihuka hasi ginen, gure zoriontasuna izugarria zen, zaila da hitzekin esatea sentitu genuena.

LORTU NUEN! Shakirarekin eszenatokian dantzatuko nuen eguna ailegatu zen. Ekainaren 4an ordu batzuk kontzertua hasi baino lehen, Pacha diskotekan, Shakiraren dantzaria, Yanet izeneko neska, eszenatokian dantzatu behar genuen koreografia erakutsi zigun. Geroago San Mamesera joan ginen, kontzertua han izango zelako.

Kontzertua hasi zenean ezin nuen sinestu, Shakiraren alboan dantzatuko nuen. Gu azken abestian aterako ginen. Igotzeko momentua ailegatu zenean oso urduri jarri nintzen, eszenatokira igo baino lehen waka waka jartzen zuten kamiseta batzuk banatu zizkiguten haiekin dantzatzeko. Eszenatokian nengoenean harrigarria izan zen, hainbeste jende abesten eta saltoka ikustea... Niretzat esperientzia ikaragarria izan da, inoiz ahaztuko ez dudana.

Faltan izan dudana gauza bakarra, Shakirarekin hitz egitea izan da.



Laukizko eskolumeak Udaletxean bisitan

Hauxe da, udaletxeari bisita egin ta gero, umeek idatzitakoa:

"Maiatzaren 20an, Laukizko Udaletxera joan gara. Oso oso polita izan da, kanpotik txikia ematen du baina barrutik handia da ta alkatea os majua da eta langileak ere. Udaletxean egon dira Isabel, Saioa, aparejadorea, Fernando (Idazkaria) eta Jose Antonio (alkatea).

Super ondo pasatu dugu! (merienda goxoa eman digute)

Eskatu dugu frontoiko hormak urdinez margozteko pilota ikusteko, loralde osoan farolak ipintzeko, herrian dendak eta banketxeak ipintzeko, belarrezko futbol zelaia egiteko, lorategietan txakurrak kaka ez egiteko kartelak ipintzeko..."

Geu be oso pozik eegon gara haiekaz eta hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu guztioi: Luka, Jon, Iraia, Gabriela, Yeray, Gorka, Gillen, Illan, Arkaitz, Aimar, Ibai eta Adrian.. eta nola ez haiekaz batera etorri zen andereñoari: Itziar

UDAL HAUTESKUNDEAK

Denok dakigunez, pasa den maiatzaren 22an, udal hauteskundeak egon ziren. Oraingo hauteskunde hauetan Laukiz zazpi zinegotzi izatetik bederatziz izatera pasatu da biztanleria 1.000 lagunetik gorakoa baita.

Hona hemen gure herrietan izandako emaitzak baita hurrengo lau urteetan alkate eta zinegotzi arituko diren lagunak ere:

LAUKIZ

Abstentzioa: %22,81 • Baliogabetuak: 7

	2011		
	BOTUAK	%	ZINEGOTZ.
EAJ-PNV	316	46,95	5
BILDU	177	26,30	3
UNBEMENDI	97	14,41	1
PP	52	7,73	0
PSE-EE-	24	3,57	0



Laukizko alkate eta zinegotzi zerrenda

Salbador Artaza Argintxona (Alkatea) EAJ-PNV
 Josetxu Santos Alvaro (Zinegotzia) EAJ-PNV
 M^a Jose Garcia Abasolo (Zinegotzia) EAJ-PNV
 Argiñe Ugarte Fernandez (Zinegotzia) EAJ-PNV
 Javier Gorordo Urbieto (Zinegotzia) EAJ-PNV
 Xabat del Barrio Valle (Zinegotzia) BILDU
 M^a Estibaliz Royo Ibarra (Zinegotzia) BILDU
 Ugaitz Arrien Mendiola (Zinegotzia) BILDU
 Manuel Perez Valle (Zinegotzia) (Unbemendi)



MARURI-JATABE

Abstentzioa: %23,81 • Baliogabetuak 14

	2011		
	BOTUAK	%	ZINEGOTZ.
EAJ-PNV	321	57,12	4
BILDU	198	35,23	3
PP	14	2,49	0
PSE-EE-	14	2,49	0

Maruri-Jatabeko alkate eta zinegotzi zerrenda

Joseba Koldo Alzaga Muruaga (Alkatea) EAJ-PNV
 Isaac Amezaga Larrazabal (Zinegotzia) EAJ-PNV
 Gema Larrazabal Egia (Zinegotzia) EAJ-PNV
 Patxi Alzaga Elortegi (Zinegotzia) EAJ-PNV
 Luis Altuna Urresti (Zinegotzia) BILDU
 Ane Orue Dañobeitia (Zinegotzia) BILDU
 Olaia Bermudez Burgoa (Zinegotzia) BILDU



Pasa den, ekainaren 11n, zapatua lehenengo Osoko Bilkura egin zen zinegotzietatik kargu hartzeko baita alkatea izendatzeko ere. Laukizen Jose Antonio Llona Goirigolzarrik alkate izateari utzi zion bere alderdikideari pasatzeko 24 urte pasa eta gero. Ondo ibili alkate!

MARURI-JATABEKO IGERILEKUAK, IKASTURTE AMAIERAKO TXANGORIK ONENA!



Igerilekuak zabaldu zirenetik asko izan dira ekainean zehar honaino hurbildu diren ikastetxeak, ikasturte amaierarako txangoa egitera. Pozik datozela esango genuke zeren eta asko eta asko urtero errepikatzen dute.

Honen adibide argiak Lauro ikastola eta Plentziako herri ikastetxearenak dira.

Haien bisita aprobeztatuz, igerilekuetara joan gara galdera batzuk egitera.

1.- Zergatik aukeratu duzue Maruri-Jatabe?

Lauro Ikastola: Ingurune polita delako, ume kopurua ikusita leku egokia delako, ikasleen adinagatik atsegina dutelako jarduera hau...

Plentzia Herri ikastetxea: Ikastetxetik hurbil egoteagatik

2.- Zer da Maruri Jatabetik gehien gustatzen zaizuena?

L.I.: Jolasteko eremu zabalak, ondo zainduta daudela

P.H.I.: Lekua oso eroso delako

3.-Igerilekuez gain badakizue zer gehiago eskeini ahal dizue herriak?

L.I.: Ez dugu herria ondo ezagutzen

P.H.I.: Bai, zelaia, jolasak, futbol pista, ping-pong...

4.- Zer botatzen duzuen faltan herrian?

L.I.: Bizikletarako errepideak eta alokatzeko posibilitatea, jolas batzuk.

P.H.I.: Eguraldi txarra eginez gero estalitako leku bat egotea. Esan behar da, bi ikastetxe hauetaz gain, Jesuiten ikastetxearen bisita ere izan genuela. Udan ere, Urdulizko "campus"ean daudenak eta Gatika eta Laukizko udalekuetara joaten diren umeak ere etorriko zaizkigu eguna pasa.

ARGAZKI LEHIAKETA 2011

Azken urte hauetan ohiko bihurtu denez, ekaina heltzearekin batera, argazki lehiaketa dugu Laukizen. Laukiko parajeak, leku izkutatuak, eta politenak begi aurrean agertzen zaizkigu argazkien bidez. Aurten laugarren ediziora iritsi gara eta iaz baino laukiztar gehiago aurkeztu direla esan dezakegu. Guztira 25 argazki izan dira, eta hona hemen epaimahaiak erabakitakoa:

1go saria: "Egun on Laukiz"

Txeli Omaetxebarria

Laukiztarrari akzesita: "Laino azpian"

Juan Manuel Legorburu

Ekainaren 23an, arratsaldeko 19etan Atxispin bildu ginen, alde batetik aurkeztutako argazki guztiak ikusteko eta bestetik sari banaketa egiteko. Aurten, sariak banatzen Salva Artaza alkate eta Argiñe Ugarte zinegotzia izan ziren gugaz.

Gero eta argazki gehiago eta gero eta kalitate hobea ikusten da gure partaideen artean.

Datorren urterarte!!



AGENDA:

Maruri-Jatabeko jaiak:

Abuztuaren 10ean,
erne etxez-etxe
helduko den
informazioari

Laukizko jaiak

Irailaren 29an,
Erne programari!

Maruri-Jatabeko herri ibilaldia

Irailaren 11n, domeka

ALE HONETAN

PARTE HARTU DUTE

Maidier Asensio
Maria Fernandez
Gardabera
Alaitz Golzarri
Gema Larrazabal
Saioa Sanz
Argiñe Ugarte


ABESTU GEUGAZ

“NEGUA JOAN DA TA” (ZEA MAYS)

Elurrak joan direnean, nire mendien artean,
eguzkia teloiaren atzekaldean da.
Ateratzeko beldur da, beldur eszenikoa,
aspaldi antzeztu ez duen obra honetan.
Izpi txiki-txikiren bat, agertuz doa gaurkoan,
poztasun haundi batek besarkatzen nau.
Mesedez ozen esan, negua joan egin dela
nire arima hotzak, ez du sinisten eta.
Laztandu nazazu, orain ur urdinen artean,
orain lainorik ez da, aurpegi biluziak,
ta larrua jotzean, garrasirik ozenena,
gordin amaigabea, negua joan da ta...
Jaio berrien antzera taupaden beharra dut orain,
belarriekin ikusteko nire begiek entzuten ez dutena.
Mesedez ozen esan negua joan egin dela,
izara guztiak erre ditut eta.
Laztandu nazazu, orain ur urdinen artean,
orain lainorik ez da, aurpegi biluziak,
ta larrua jotzean, garrasirik ozenena,
gordin amaigabea, negua joan da ta...
Soinu bakar bakarra
zure bularraldean
negua joan da ta
borobildu zaizkit ertzak
zure ondoan
izpi lasaigarri bat
negua joan da ta, negua joan da ta..



MARURI-JATABEKO
UDALA



LAUKIZKO
UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Plan general de promoción del uso del euskera



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURODETZA